

EBAZPENA, 2023ko **otsailaren 23koa**, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren zuzendariarena, zeinaren bidez berriro jendaurrean jartzen baita Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartu zuen irailaren 27ko 139/2016 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko uztailaren 14ko Aginduaren bidez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzeko izapideak hasia erabaki zen.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko uztailaren 23ko Aginduaren bidez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzeko dekretu-proiektua alde aurretik onartzea erabaki zen.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2019ko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzeko dekretu-proiektua.

Kontuan hartuta herritarrek, hainbat elkartetan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako udalek aurkeztutako alegazioek aldaketa garrantzitsuak dakarzikotela Natura Ondarearen eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2019ko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez jendaurrean jarri zen dekretu-proiektuari, beharrezkotzat jotzen da jendaurrean jartzeko izapide berri bat egitea.

Azaldutako guztiagatik, eta honako hauek kontuan hartuta: Urdaibaiko Biosfera Gebenalea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15.1 artikulua; Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikulua; Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.2 eta 1.2.3 artikulua; eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 7.m) artikulua zuzendari-kargua duten pertsonen ematen dien eskuduntzari jarraikiz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua hilabete batez jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hasiera/>) eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ekonomiaren-garapen-azpiegitura-saila/>).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 23a.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren zuzendaria,  
ADOLFO URIARTE VILLALBA.

